

Tolosaldeko Emakumeen Etxea: egitasmoa garatzeko prozesua

Gune Zabalaren 2.bilera



00 Zer egingo dugu gaur?

- 01 Emakumeen Etxea proiektua kokatu
- 02 Egindako lana aurkeztu
- 03 Etxearen izena erabaki
- 04 Prozesuaren balorazioa eta itxiera




18:00-20:00



01 Proiektua kokatu

Finantzaketa partekatua: baliabideak



01 Prozesua kokatu

LANERAKO GUNEAK

**TALDE
MOTOREA**
(4 bilera)

Prozesuari etengabeko
segimendua egiteko gunea.

**TALDE
ERAGILEA**
(6 bilera)

Lan-plangintzan jasotako
hainbat lanketa garatzeko
gunea.

**LANTALDE
POLITIKO
TEKNIKOA**
(4 bilera)

Prozesua eta emaitza ontzat
emateko, nahiz lan-plangintzan
jasotako hainbat lanketa
bideratzeko gunea.

**GUNE
ZABALA**
(2 bilera)

Egitasmoa sozializatzeko
gunea

02

Egindako lana
aurkeztu



02 Egindako lana aurkeztu

1. Zatia



02 Prozesuan landutako gaiak

- Etxearen **helburuak** eta printzipio gidariak
- Etxearen **erabiltzaileak**
- Erabiltzaileen **eskubideak** eta betebeharrak
- Etxearen **jarduerak** eta zerbitzuak
- Etxearen **kudeaketa-eredua**: lanerako guneak eta baliabideen kudeaketa
- **Finantzaketa** partekatua
- Etxearen **Elkartea**
- Etxeko **dinamizatzailearen profila** eta **funtzioak**
- Etxearen **funtzionamendua**: jendaurreko ordutegia, espazioen erabilera.
- Espazioen deskribapena



-> Etxearen erregelamendua

02 HELBURUAK Zertarako Emakumeen Etxe bat Tolosaldean?

GUTASUN BATEN PARTE SENTITZEKO

- **Gertutasuna eta konfiantza** eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko.
- **Parte** sentitzeko eta parte izateko.
- **Seguru eta babestuta** sentitzeko.
- **Libre** izateko.
- **Aisialdiko jarduerak** lantzeko, giroari arreta berezia jarrita.

AHALDUNTZEKO

- **Informazioa jasotzeko eta ikasteko.** Garapenerako gunea izateko.
- Emakumeak etengabe ahalduntzeko: **Jabetze Eskola.**
- **Feministak sortzeko laborategia** izateko, feminismoaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.

SAREAK ERAIKITZEKO

- **Emakume anitzak** (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko.
- Eskualdeko **mugimendu feminista sendotzeko.**
- Eskualdeko emakume guztien **indarrak batzeko.**
- Emakume-taldeen **egoitza** izateko.

INDARKERIA MATXISTA IKUSPEGI INTEGRALETIK LANTZEKO

Baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea

ERALDAKETA SOZIALERA KO


Eraldaketaren ikuspegitik jendarteko eremu guztietan **politikoki eragiteko** (behatoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza-lanak, etab.

02 HELBURUAK

Adostutako INDARKERIA MATXISTAREN azalpena:

Emakumeen aurkako indarkeria gizonek emakumeekiko duten menderatze-sistemaren adierazpen bat da. Emakumeen aurka zuzentzen da emakume izateagatik. Sexu-genero sistemaren arauetan sartzen ez diren pertsonen aurka gauzatzen diren gainerako indarkeria motak homofobia, lesbofobia eta transfobia dira.

02 PRINTZPIO GIDARIAK (Nolakoa)



02 ETXEAREN ERABILTZAILEAK

Etxearen erabiltzaile nagusiak **16 urtetik gorako emakumeak** izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak, Tolosaldeko talde feministetakoak zein gizon eta emakumeen arteko berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako kideak.

Etxearen **jarduerak emakumeei zuzendutakoak** izango dira, oro har, eta hartzailea edo xede-taldea zein den zehaztuta ez dagoenean, emakumeei zuzendutakoa dela ulertuko dugu.

Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea jarduera mistoak antolatzen.

Egoki baloratzen den unean, **mistoak diren edo gizonei zuzendutako jarduerak** antolatzeko aukera egongo da. Hala denean:

- Argi eta garbi adierazi beharko da jarduera mistoa edota gizonezkoei zuzendutakoa dela.
- Beti egongo dira zuzenki lotuta berdintasunarekin eta feminismoarekin.

02 ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK

- Etxearen erabiltzaileek Etxeak eskaintzen dituen zerbitzu, **baliabide eta jardueretan parte hartzeko** eskubidea izango dute; beharrezkoa den kasuetan aldez aurretik eguna eta ordutegia adostuz.
- Etxearen erabiltzaileek Etxearen eguneroko jarduerarekin lotuta egokiak iruditzen zaizkien **ekarpen eta iradokizunak** egiteko eskubidea izango dute, Talde Eragileko partaideekin harremanetan jarrita.
- Etxearen erabiltzaileek **gune seguru batean** egoteko eskubidea izango dute, eta **konfidentzialtasuna** bermatuko zaie.

BETEBEHARRAK

- Etxearen dinamikarekin lotuta hartutako **konpromisoak betetzea**. Adibidez, Etxearen kudeaketarako guneetan parte hartzea, hala adostuz gero.
- Etxearen printzipio orokorreko eta gainerako erabiltzaileekiko **errespetuz eta konfidentzialtasunez** jokatzeko.
- Etxearen baliabide, **material eta hornikuntzak zaintzea**, egoera onean mantentzea eta egoki erabiltzea. Eta ondasunei kalterik eraginez gero, kudeaketa-organoen aurrean erantzule gisa agertzea, konponbideak elkarrekin adosteko.
- Etxearen **erregelamenduan jasotakoak onartzea eta bere egitea**, Etxearen zehaztapena egiten duen funtsezko araudi gisa.
- Etxearen funtzionamendurako eta erabilerarako **arauak errespetatzea**, eta Etxearen funtzionamendu egokirako lan egitea.

02 Egindako lana aurkeztu

2. Zatia



Kudeaketa-ereduaren proposamena

Kudeaketa-eredu partekatua

Abiapuntua:

Koordinatzailearen

(dinamizatzailearen) eta Tolosako

Udaleko **berdintasun-teknikarien**

artean etengabeko harremana:

Etxearen dinamikari etengabeko

segimendua egin; jasotzen diren

proposamenak aztertu eta baloratu;

parte hartzen duten lanerako

guneetan idazkaritza-lanak egin;

etab.

Horrez gain, **dinamizatzaileak eta**

Tolosako Udaleko berdintasun-

teknikariak eskualdeko herrietako


Gizarte Zerbitzuetako

teknikariekin ere harremana

edukiko du (batez ere

indarkeriarekin lotutako gaiei

dagokienez).



Kudeaketa-ereduaren proposamena



Lantaldeak

Osaera:

- Lanerako gune irekiak izango direnez, Etxearen egitasmoan aktiboki parte hartzen duten **emakumeek edozein lantaldetan** parte hartzeko aukera edukiko dute. Partaidetza borondatezkoa izango da.

Funtzioak:

- Etxearen **helburuak eta adostutako ildo estrategikoak** garatzea.
- Etxean garatzen diren **jardueren eta programen plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-lana modu koordinatuan** erraztea.

Dinamika:

- Unean uneko beharren arabera sortuko dira, Talde Eragileak sustatuta. Lantalde batzuk iraunkorrak izango dira, eta beste batzuk, aldiz, aurreikusitako zereginak egin ondoren desagertu egin daitezke.
- Lantalde bakoitzak helburu, lan-plangintza eta **dinamika propioak** izango ditu, nahiz eta **elkarren artean erlazionatuko** diren eta **elkarrekin elikatuko** diren.

Adibidez: Etxearen programazioa prestatzeko lantaldea, komunikazio-lantaldea, kulturartekotasuna, liburutegi feministakoa, juridikoa,...

Kudeaketa-ereduaren proposamena

Talde Eragilea

Osaera:

Funtzionaltasunari begira, **gehienez 10 pertsonak** osatutako talde anitza izango da.

Konpromiso-maila handiena hartzeko prest dauden emakumeek euren burua aurkeztu dezakete boluntario gisa Talde Eragileko partaide izateko, edota beste emakume batzuek proposatuta aurkez daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da, hainbat irizpide kontuan hartuta; besteak beste, adina, udalerrria, eragile edota elkarte, eta jatorria. Beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten emakumeak hautatuko dira. Berdintasun-teknikari eta dinamizatzailerak ez dute bozketan parte hartuko. Bi urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Talde Eragilearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta **ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa izango den taldeko ordezkarien erdiak jarraitzea beste urte batez, eta taldearen ordezkari erdiak aldatzea.**

Hauek osatuko dute Talde Eragilea:

- Elkarteko ordezkariak
- Lantalde guztietako ordezkariak
- Tolosaldeko talde feministetako eta genero-berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako ordezkariak
- Etxearen dinamizatzailerak
- Berdintasun-teknikaria

Funtzioak:

- Gune Zabalean edo Asanbladan adostutakoak gauzatzeko behar diren **baldintzak sortzea**, eta alderdi tekniko eta funtzionalarekin lotutako **erabakiak hartzea**.
- Etxearen **erabilerarekin** eta **funtzionamenduarekin lotutako alderdiei etengabeko segimendua** egitea: lantaldeak, Etxearen erregelamendua, etab.
- Etxearen **programazioari begira, egiten diren proposamenak aztertzea**, eta Etxearen printzipio, helburu eta lan-ildo estrategikoekin bat datozeela bermatzea.
- Talde Eragilean lantzen diren gaien artean, **Koordinazio Gunean** edota **Gune Zabalean edo Asanbladan landu eta erabakitzeak** diren gaiak identifikatzea eta bideratzea.
- Emakumeen Etxean antolatutako **jardueren funtzionamendua aldizka ebaluatzea** eta, hala badagokio, beharrezko hobekuntza-neurriak hartzea.
- Balizko arazoaren aurrean **irtenbideak aurkitzeko proposamenak** egitea.
- **Gune Zabala edo Asanbladaren bilerak** prestatzea: deialdiak, dinamizazioa, akta...

Dinamika:

- **Bilerak hilean behin** egingo dira, eta baita beharra ikusten denean ere; deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira. Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko. Berdintasun-teknikari eta Etxearen dinamizatzailerak ez dute bozketan parte hartuko. **Bilera egin ahal izateko partaideen erdiak bertaratu beharko dute.**

* **OHARRA:** Talde Eragilea eta Koordinazio Gunea lehen aldiz osatzean, partaidetza-prozesuan parte hartu duten Talde Eragileko eta Lantalde Politiko Teknikoko kideak hartuko dira aintzat.

Kudeaketa-ereduaren proposamena



Koordinazio Gunea

Osaera:

10 pertsonen osatuko da, eta beti ere ordezkari politikoen eta lantaldeetako nahiz eragile eta elkarteetako emakumeen arteko **ordezkaritza parekidea** izango da. Koordinazio Gunean parte hartzeko prest daudenek euren burua aurkeztu dezakete boluntario gisa, edota beste pertsona batzuek proposatuta aurkez daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da eta, beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten pertsonak hautatuko dira. Berdintasun-teknikari eta dinamizatzailerak ez dute bozketan parte hartuko.

Hiru urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Koordinazio Gunearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, ordura arteko ordezkari batzuek jarraitu ahal izango duten, gehienez lau urtera arte. **Ordezkarik politikoen kasuan, legegaldiko aldatuko dira.**

Hauek osatuko dute Koordinazio Gunea:

- Berdintasuneko arduradun politikak; guztira 4 ordezkari: bi Tolosako Udalaren partetik, eta beste bi Tolosaldeko udalen partetik (ahal dela emakumeak izatea bermatuko da)
- Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria
- Etxeko dinamizatzailerak
- Elkarreko ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen dutenak)
- Lantaldeetako ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen dutenak)
- Tolosako Berdintasun Kontseiluko ordezkari bat (ez-politikaria, gainerakoan politikari eta ez-politikari arteko parekidetasuna bermatu beharko da)
- Tolosaldeko talde feministetako eta genero-berdintasuna helburu duten emakume-elkarteetako ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen dutenak)

Funtzioak:

- Etxeari eragiten dioten **araudi eta hitzarmenei segimendua** egitea eta, hala badagokio, berrikustea.
- Emakumeen Etxean antolatutako jardueren **funtzionamendua aldizka ebaluatzea** eta, hala badagokio, beharrezko hobekuntza-neurriak hartzea.
- Erakundeen eta emakumeen artean **koordinazioa eta solaskidetza** mantentzea.
- Etxeko jarduerak garatzeko **beharrezko baliabideak eta finantzaketa** aztertzea.
- Talde Eragileak proposatutako jarduerak eta proposamenak aztertzea eta bideratzea.

Dinamika:

- Hasieran bilerak hilean behin izango dira, baina Etxeak martxa hartu ahala **bilerak gutxi gorabehera hiru hilean behin** egitea aurreikusten da, eta baita beharra ikusten denean ere. Deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira. Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko. Berdintasun-teknikariak eta Etxearen dinamizatzailerak ez dute bozketan parte hartuko. Bilera egin ahal izateko **partaideen erdiak bertaratu beharko dute, eta ordezkariak parekidea izan beharko du** ordezkari politikari eta ez-politikari artean.

* **OHARRA:** Talde Eragilea eta Koordinazio Gunea lehen aldiz osatzean, partaidetza-prozesuan parte hartu duten Talde Eragileko eta Lantalde Politikoko kideak hartuko dira aintzat.

Kudeaketa-ereduaren proposamena

Gune
Zabala /
Asanblada

Osaera:

- Emakumeen Etxeko partaideak (lanerako guneetako ordezkariak nahiz Etxearen dinamikan parte hartzen dutenak)
- Etxearen dinamizatzailerak
- Berdintasun-teknikaria
- Berdintasuneko arduradun politikoak
- Elkarrearen ordezkariak
- Tolosaldeko talde feministetako eta genero-berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako kideak
- Egitasmoaren inguruan interesa duen edozein emakume

Funtzioak:

- Lanerako guneen osaera ontzat ematea.
- Emakumeen Etxearen **lan-ildo estrategikoak** zehaztea.
- Emakumeen Etxearen **araudi eta hitzarmenak ontzat ematea eta, hala badagokio, horiek aldatzeko egindako proposamenak onartzea.**
- Emakumeen Etxearen **ebaluazio orokorra** egitea eta, hala badagokio, esku-hartze berriak proposatzea.
- Emakumeen Etxearen **kudeaketa orokorraren nahiz lanerako guneen jarraipena** egitea; besteak beste, lanerako guneen osaerak onartzea, urteko memoria-txostenak onartzea, etab.
- Talde Eragilean nahiz Koordinazio Gunean **berdinketa egonez gero bozketan, gai horren inguruko erabakia hartzea.**
- Eskualdeko **emakumeen arteko harremanak eta sareak** lantzea.

Dinamika:

- **Urtean gutxienez bi bilera** egingo dira, eta baita beharra ikusten denean ere; deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira. **Gutxienez 11 partaidek bertaratu beharko dute bilera egin ahal izateko.** Erabakiak adostasunez edo kontsentsuz hartuko dira; adostasunik ez badago bozkatu egingo da, gehiengo soilaren bidez akordioetara iristeko. Bozkatzeko aukera Etxearen dinamikan aktiboki parte hartzen dutenek edukiko dute (lanerako guneetako partaideek nahiz antolatutako jardueretan parte hartzen dutenek, berdintasun-teknikari eta dinamizatzailerak izan ezik).

02 Egindako lana aurkeztu

3. Zatia



02 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Etxearen jarduerak Etxean nahiz Etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

ETXEA EZAGUTARAZTEKO, HARREMANAK ERAIKITZEKO ETA BERDINTASUNA/KONTZIENTZIA FEMINISTA SUSTATZEKO JARDUERAK

Ate irekiak

Emakumeen Etxeen arteko topaketak

Tailerrak; hitzaldiak; ikastaroak; mahai-inguruak; jardunaldiak; monografikoak...

Batzarrak; eztabaidatzeko espazio kritikoak; topaketak; hausnarketak;...

Jarduera ludikoak (jaiak) edo gastronomikoak (bazkariak, afariak, meriendak)

Jarduera kulturalak: erakusketak, kontzertuak, irakurle-klubak, zine-forumak...

Kirol-jarduerak; mendi-martxak

Kaleko ekintza zuzenak: espazio publikoan emakumeen ikusgaitasuna handitzeko ekimenak; manifestazioak; performanceak; inauterietako konpartsa; etab.

Ekimen solidarioak (genero-ikuspegiarekin)

Maskulinitateen inguruko tailerrak

02 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Etxearen jarduerak Etxean nahiz etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

ETXEAREN BESTELAKO JARDUERAK

Aholkularitza-zerbitzuak: psikologikoa (banakakoa zein taldekakoa), juridikoa, sexualitatearen ingurukoa, homologazioa, laborala, etorkinentzako harrera

Ahalduntzeko guneak edo dinamikak

Behatoki kritikoa. Azterketak: mapeoak, diagnostikoak, ikerketa-bekak


Denboraren bankua

Emakume sortzaileen ikusgaitasunerako gunea

Esparru desberdinetan **esku hartzeko egitasmoak**

02 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Lehentasuna izango dute jarduera eta zerbitzu hauek:



- ➔ **Ahalduntzeko gune eta dinamikaren barruan:**
- Jatorri desberdinetako emakumeen ahalduntze taldea
 - Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea
 - Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen taldea
- ➔ **Behatoki kritikoa.** Ikerketak egitea:
- Dokumentazio gunea

Interseksionalitatea edo emakume desberdinen beharrak presente eduki

Jarduera eta zerbitzu guztiak dira garrantzitsuak

02 Dinamizatzailearen profila

Berdintasun-teknikari profila

Lanaldi osoa

**Deialdi ireki bidez
aukeratuko da**

**Euskaraz lan egiteko
gaitasuna (C1 gutxienez)**

**Teoria feminista eta
mugimendu
feministaren ezagutza**
izatea, baita emakume
taldeen dinamizazio-
lanetan esperientzia
izatea ere

Emakumeen
aniztasun
funtzionala kontuan
hartzea deialdian

**Eskualdeko
ezagutza**
izatea

**Koordinatze
ko gaitasuna**
izatea

Emakumeen
aniztasun unari
buruzko ezagutza
izatea

**Entzuteko eta
enpatizatze**
ko gaitasuna
izatea

02 Dinamizatzailearen funtzioak

1. Etxera hurbiltzen diren emakumeei **harrera egin** eta **informazioa eman**. Eskabideen tramitazioa egin.
2. 24 herrietako udalekin eta talde feministekin **harremanetan egon**.
3. Eskualdeko talde feministen **mapeoa** egin.
4. Tolosako Udaleko **berdintasun-teknikariekin batera**, Etxeko lantalde, jarduera eta zerbitzuak koordinatu, dinamizatu, planifikatu (irakasleen kontratazioa, Tolosako Udalarena ez bada) eta ebaluazioa egin.
5. **Kudeaketa-organoetan** parte hartu: Talde Eragilea, Koordinazio Gunea, eta Gune Zabala/Asanblada. Kudeaketa organoetako bilera-deialdiak egin, akta jaso eta bidali.
6. Kudeaketa-organoetan hartutako **erabakiak gauzatu eta koordinatu**.
7. **Berdinbideanen** parte hartu
8. **Indarkeria matxista** kasuen deribazioa egin, berdintasun-teknikariekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta.
9. **Espazioaren kudeaketa** egin: jardueretarako gelak prestatu, atea ireki eta itxi (ordutegia goiz eta arratsalde)
10. **Programaziorako** proposamenak egin, programazioa diseinatu eta aurrera eraman.
11. **Urteko memoria** egin eta aurkeztu dagokion organoan.
12. Gipuzkoako Emakumeen Etxeen artean sortu berri den **sarean parte hartzea**.

02 Egindako lana aurkeztu

4. Zatia



02

Espazioaren deskribapena



02 Espazioaren deskribapena

Etxearen antolaketa espaziala

ESPAZIOAK	HORNIDURA
• Harrera-gunea • Emakumeen topaleku egongela • Berdintasun saila • Areto nagusia • Balioanitzeko 6 gela • 2 bilera-gela • 2 zerbitzu-gela • Sukalde-office • Ordenagailuen-gunea • Komunak • Biltegia	• Takilak edo armairuak taldeentzat

02 Etxearen funtzionamendua

Etxea **astelehenetik ostiralera** irekita egongo da, **goiz eta arratsalde, baina ordutegi zehatza oraindik ez da itxi.**

Publikoari irekita dagoen ordutegian **Etxeko dinamizatzaileak harrera** egingo du. Publikoari irekita ez dagoen orduetan **giltzaren bitartez** erabili ahal izango da Etxea. Aldez aurretik egin beharko da eskaria horretarako.

Lokala itxita dagoenean espazioa erabiltzeko **baimena edozein erabiltzailek** eska dezake. (Erregelamenduan zehaztuta dagoen erabiltzaile figuran sartzen den emakume orok izango du espazioaren erabilera eskatzeko aukera. Etxeko erabiltzaileen erregistroa egongo da)

Espazioa erabiltzeko eskaera **norbanakoaren izenean** egingo da. Ekintzaren arduraduna talde bat izan arren, izen-abizenekin egin beharko da espazioaren erabileraren eskaera.

Etxeko espazioa erabiltzeko **eskaerak dinamizatzaileak jasoko ditu.**

Giltzaren arduraduna eskatzailea izango da, norbanakoa zein taldea.

Etxearen helburuekin bat datozen ekintzetarako erabili ahal izango da Etxea.

02 Etxearen Elkartea

ETXEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA IZATEKO

Ordezkarari hori **Etxeko Gune Zabala edo Asanbladan** aukeratuko da. Izan ere, erabaki-gune berri bat sortu beharrik gabe, dagoeneko kudeaketa organoetan zehaztuta dagoen Gune Zabala edo Asanbladak Elkartearen Asanblada izaera hartuko du.

INTERLOKUZIORAKO

Bai **udalekin zein** Emakumeen Etxearen inguruan mugitzen diren **emakumeen artean** sortzen diren ideiak kudeatzeko

DIRULAGUNTZAK ESKATU ETA DIRUA KUDEATZEKO

Elkartearen Asanblada ere bihurtuko den **Gune Zabala edo Asanbladan erabakiko da** Elkartearen dirua nola eta zertarako erabiliko den. Era berean, diruaren kudeaketa lanaz arduratuko den **lantalde** bat sortuko da Etxean, Elkarteko presidente, idazkari eta diruzainari tramitazioekin laguntzeko.

BAZKIDEAK

Ez zaie baldintza berezirik eskatuko bazkide izan nahi duten emakumeei (kuotarik ez), eta bazkide **zerrenda barne mailan** geratuko da.

03

Etxearen izena erabaki




03 Etxearen izena erabaki

- **Andragora**
- **Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxea**
- **Tolosaldeko Emakumeen Etxea**

Atera bakoitzak zuen mugikorra, bozka anonimoak egiteko:

www.wooclap.com/ETXEA



Ez sartu googlen. Goiko bilatzaile barran baizik.

1. GALDERA

- 3 izen hauen artean, zein jarriko zenioke Tolosaldeko Emakumeen Etxeari?

2. GALDERA

- Esan hitz batean zer iruditu zaizun entzun duzun emailza.

04

Prozesuaren itxiera eta balorazioa



04 Prozesuaren itxiera eta balorazioa

Etxea ireki bitartean lantaldeetan parte hartzeko aukera egongo da:

- Elkartea sortzeko eta elkartearen kudeaketarako lantaldea
- Altzariak eta obren jarraipena (Ixiar A., Silvana)
- Komunikazioa
- Etxearen inaugurazioa eta programazioa

Harremanetarako: berdintasuna@tolosa.eus (Agurtza)

